IRAKURMENA LH4. MARTE

- … ba urak sortu ote zituen edo ez, eta bizitzarik ba ote dagoen Marten.
- Hori da, hori da. Eta azken batez oso lotuak doazen bi, bi gai dira. Guk, dakiguneraino behintzat, ura ezinbestekoa da bizitza sortu dadin. Hortaz, … mm

…, orain bidali berri diren eta bidaltzeko, laster bidaltzeko diren espazio-ontzi guzti horien helburu nagusia horixe da: ea Marten ura dagoen zehaztu dezaketen.

Orain arte uste da baietz, ba dagoela izotza lurpean behintzat, baina ditugun zantzuak ez dira zuzenak, e? zeharkako frogak dira. Orduan, beno, oraingoan … e … helburua izango litzateke hori zehaztea: ea urik dagoen ala ez. Horrek aukera emango lukeelako bizitza egon dadin edo egona izan dadin, e? Orduan, eta horrek izango luke, beno, hori baieztatzeak eta, beno, helburu horrekin ere diseinatu dira esperimentu batzuk bidali diren espazio- ontzietan, beno, hori izango litzateke garrantzi izugarrizko esperimentu bat edo … hori jakiteak garrantzi izugarria izango luke: bizitza dagoen ala ez. Eta lehengo pausua izango litzateke, dudarik gabe, ura dagoen ala ez argitzea.

1.- Zertaz hitz egiten dute?

A. Urari buruz.
B. Marteri buruz.
C. Hasieran ez da esaten.
D. Esperimentu bati buruz.

2.- Zer da beharrezkoa toki batean bizitza sortzeko?

A. Ura.
B. Lurra.
C. Gizakiak.
D. Animaliak.

LIVEWORKSHEETS

3.- Zertarako bidali dituzte espazio ontziak?

A. Ilargira joateko.
B. Marte ezagutzeko.
C. Marten ura dagoen ala ez aztertzeko.
D. Marten bizitzea posiblea den jakiteko.

4.- Marten ura egotekoan, nola egongo litzateke?

A. Izoztuta lur azpian.
B. Lakuetan, lur azpian.
C. Planetaren itsasoetan.
D. Ez litzateke inon egongo: Marten ez dago urik.

5.- Orain arte dauden frogak, nolakoak dira?

A. Ez dira seguruak.
B. Onak: fidagarriak dira.
C. Ez dago inolako frogarik.
A. Argazki batzuk baino ez daude.

6.- Aukeratu entzun duzun testurako izenburua.

A. Ura dago Marten?
B. Bizitza dago Marten?
C. Esperimentu berriak Marten.
D. Bizi ahal izango gara Marten?

7.- Irakurritako testua...

A. Albiste bat da.
B. Iragarki bat da.
C. Elkarrizketa bat da.
D. Ipuin kontaketa bat da.

LIVEWORKSHEETS